



**El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.**

Oihane Agirregoitia

2024.6.5 Gernikako Batzar Etxea

Hemen da Euzko Alderdi Jeltzalea. Demokraziaren alde, askatasunen alde eta giza eskubideen defentsan. Beti egon den lekuan. Faxismoari aurre egiteko prest! Duela 88 urte Agirre Lehendakariak hemen bertan zin egin zuen bere agindua ondo betetzea euzko gudariak Intxortan, Elgeta eta Elorrio artean, demokrazia eta eskubideak defendatzen ari ziren bitartean. Gaur demokrazian bizi gara. Eskubideak eta askatasunak ditugu. Baina ezin ditugu segurtatutzat eman, orduan hasiko baikara galtzen. Europa Bigarren Mundu Gerrako sakaskitik eraiki zen. Ez da ahaztu behar. Eta Europak bidegurutze bat bizi du gaur egun. Mundu mailan gatazkak ugaritzeak inoiz baino beharrezkoagoa egiten du Europar Batasunaren zeregina indartzea. Europar erreferenteak gara mundu osoko eskubideen eta askatasunen defentsan.

Kanpo-politika koherentea behar dugu:

- Ikuspegi horren buru izateko erakunde multilateraletan
- Gure demokrazia hobetzeko egunero lan egitea eta askatasunen gune komun bat eraikitzeke
- Botere-banaketa eta gutxiengoekiko errespetua bultzatzeko
- Elkarrizketak eta politikak autoritarismoaren tentazioari aurre egitea lehenetsiz
- Justizia sozialak elkartasuna eta enpatia bultzatu behar ditu

Eta abiapuntu horretatik, gure konpromisoak dira:

- Edozein motatako totalitarismoari aurre egitea, memoria demokratikoa, justizia soziala, aukera-berdintasuna eta zuzenbide-estatu bultzatuz
- Desberdintasun politikoak konpontzea, elkarrizketa bermatuz
- Baldintza klausulak babestea, gobernantza demokratikoaren oinarriko arauak hausten dituzten estatu kideak zigortzeko
- Europaren Etorkizunerako Konferentziari buruzko ondorioak gauzatzea
- Gure zuzenbide estatuaren egoerari buruzko urteko berrikuspenak hobetzea eta independentzia judizialaren narriadura monitorizatzea.

Europa bizitzeko munduko lekurik onena da. Eta balio hauek zaindu behar ditugu: demokrazia, askatasuna, justizia soziala, elkartasuna, berdintasuna eta aniztasuna. Giza Eskubideen urraketen aurkako jarrera irmoa izatea. Eta ez, ez dugu bandoen Europan sinesten. Gu beti batasunean, akordioan eta askatasunean. Faxismoaren kontra, eta muturreko mugimenduen kontra, eskuin zein ezkerrekoak. Gu demokraziaren alde. Egonkortasuna eta ongizatea, edo populismoak eta muturreko ideia.